



Marengo karrika 22  
64 100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
aek@wanadoo.fr

Baiona, 2008ko irailaren 11a

## *Ne donne pas ta langue au chat* 2008/09-ko sartzea

Urtero bezala irailean, AEK elkarteak helduentzako euskara kurtsoen sartzea prestatzen ari da eta ikasmolde desberdinak, pedagogia eraginkorra eta irakasle adituak eskaintzen dizkio Euskal Herriko hizkuntza ikasi nahi duen orori.



“*Ne donne pas ta langue au chat*”. Hauxe da AEK-ko sartze kanpainako leloa. Gaur egun “*aterabidea atxemaiteari uko egitea*” erran nahi duen 19garren mendeko erdarazko lokuzio honek baliorik gabeko zerbait abereei emaitako ohitura adierazten zuen orduan.

AEK-rentzat, bistan dena, euskara ez da baliorik gabeko zerbait, alderantziz. Gisa berean, erdaldunei, Euskal Herriko hizkuntza ultertzen ez dutenei, amore eman ordez, aterabidea proposatzen die AEK-k. Gisa berean, dei berezia luzatu nahi die euskara poxi bat dakiten guztiei. Mintzamina hobetu, idazten trebatu, irrati-telebista konprenitu, beren haurrak lagundu, lanean erabili, hona hemen lor ditzaketen helburu konkretuak urte bateko klaseak segitu ondoren.

### Izenak emaitako permanentziak eta kurtsoen hasiera

Izena emaitako permanentziak irailaren 15etik goiti hasiko dira Ipar Euskal Herriko Gau Eskola guzietan<sup>1</sup>. Kurtsoen hasiera maila guzientzat **urriaren 6an** astelehenarekin finkatu da.

Iazko **14 Gau Eskola** lanean jarraituko dira klaseak antolatuz 20 herri desberdinetan eta bi totikan Gau Eskolak hasiko dira : Beskoitze eta Mugerre. Horrez gain, kanpoko zentroak ere jarraituko dira Paue, Bordale, Tolosa eta Parisen.

<sup>1</sup> Ikus urrunago Gau Eskolaka egun eta tenoreak

Aurten ere AEK-k ikasle berri guztiei **aste batez klaseak dohainik eta engaiamendurik gabe** segitzea eskaintzen die. Horrela dudak eta kezak dituzten pertsonak, gure irakaskuntza zer den eta nola den ikusteko aukera izanen dute.

Bestalde, urritik ekainerako kurtsoez aparte, AEK-k usaiatzko **ikastaro intensiboagoak** antolatuko ditu urtean zehar: aste batetik 4 hilabete arte. Halaber uda honetan proposatu ikastaro berrien arrakasta ikusirik (euskara eta dantza, 6 egun euskaraz bizi, GR10-ean ibiliz), esperientzia errepikatu eta zabalduko da 2009ko udan.

Heldu diren hilabeteetan xede taldeak (Lurralde kolektibitateen enpleguak, haurtzaindegi edo enpresetako langileak) gero eta gehiago ugarituko dira. 130 ikasle bilduko duten 22 talde hasiko dira irailean eta beste 6 urtarrilean abiatuko dira (50 ikasle orotara). Helduentzako irakaskuntzak dimentsio berri bat hartzen du eta euskararen presentzia bizitza sozialeko beste esparru batzuetara hedatuz, bere funtzio estrategikoa betetzen du. Joan den ekainean argitaratu azken inkesta sozio-linguistikoa erakutsi du hain zuzen, hori zela bidea, faktore demografikoek eragindako hiztunen galerari buru egiteko.

Ikasturte berri honetan, AEK-k on-line burutuko den EGA ikastaroa eskainiko du [www.e-gela.aek.org](http://www.e-gela.aek.org) gunean, tutore baten aholkularitza eta jarraipen etengabearen pean. Ikastaroan baliatuko den Moodle plataforma biziki erabilerrexa denez, ez da informatikan aditua izan beharrik, aski da oinarrizko erabiltzaile maila ukaitea.

Bestalde aurten ere zorbait tresna eskuartean izanen dituzte ikasleek :

✓**internet bidezko lau hilabeteko ikastaroa** segitzen ahalko dute idazmena landu nahi duten pertsonak. Tutore batek lagundurik, iritzi testuak landuko ditu ikasleak, egunkari edo aldizkarietako material errealean oinarrituz. Xehetasun eta izen emaita : [www.aek.org](http://www.aek.org) webgunean.

✓**ariketa eta zuzenketak** internet bidez eskuragarri izanen dituzte ikasleek kurtsoan ikasitakoa osatu eta lantzeko, Iparraldeko AEK-k apailatu duen datu basean : [www.aekide.net](http://www.aekide.net) .

### **2008/2009ko perspektibak**

Hasten den ikasturte honetako gertakari nagusietariko bat, frantses Parlamentuan lurralde hizkuntzei buruzko lege proiektuaren bozkatzea izanen da, joan maiatzaren 7an Kultura ministroak hitz eman bezala. Euskaltzale guziak, herri mugimendu nahiz hautetsiak, euskarak beharrezkoa duen hizkuntza politika ausarta bermatzeko lege kuadroaren beha daude.



Marengo karrika 22  
64 100 BAIONA  
05 59 25 76 09  
aek@wanadoo.fr

Baiona, 2008ko irailaren 11a

## *Ne donne pas ta langue au chat*

Comme chaque année à la mi septembre l'association AEK, la coordination des cours de basque aux adultes prépare sa rentrée et propose à toutes les personnes désireuses d'apprendre et de parler la langue du Pays basque, des formules de cours diverses, une pédagogie active et des formateurs expérimentés.

« *Ne donne pas ta langue au chat* » est le message qu'adresse un sympathique toutou sur les affiches de l'association à l'occasion de cette rentrée. Cette locution apparue au XIXe siècle et dont le sens aujourd'hui est « *renoncer à trouver la solution* », traduit au sens figuré la coutume de donner les restes de nourriture aux animaux. Jeter sa langue exprimerait ainsi le fait d'abandonner sa langue comme un reste, jugée inutile parce que n'apportant aucune parole de valeur.



La langue basque est bien évidemment tout sauf quelque chose d'inutile ou sans valeur pour AEK qui refuse donc « *de la donner au chat* ». De la même façon elle invite aussi les non-bascophones à ne pas « *renoncer à la solution* » (donner sa langue au chat) qu'elle propose, à savoir suivre une de ses formules d'apprentissage, face à leur incompréhension de la langue basque,.

AEK lance par ailleurs un appel spécial en direction des personnes ayant déjà une certaine connaissance de la langue basque. Travailler l'aisance à l'oral, se perfectionner à l'écrit, bien comprendre la radio ou la télévision, aider ses enfants apprenant en basque, utiliser l'euskara dans son travail, autant d'objectifs concrets qui justifient quelques mois d'efforts dans une Gau Eskola.

### Permanences d'inscription et début des cours

Les permanences d'inscription débuteront à partir du **15 septembre** dans toutes les Gau Eskola du Pays basque Nord (voir tableau ci-dessous). Le début des cours est fixé au **lundi 6 octobre**.

Cette année des cours auront lieu dans deux nouveaux endroits, à Briscous et Mougerre en plus des **14 Gau Eskola** qui fonctionnent régulièrement en Pays basque Nord assurant des cours dans 20 communes, sans oublier les centres de Pau, Toulouse, Bordeaux et Paris.

Afin de surmonter les appréhensions que peuvent avoir certaines personnes concernant l'apprentissage à l'âge adulte d'une langue totalement différente de celles qu'elles peuvent connaître, AEK propose à nouveau en cette rentrée 2008 de **suivre gratuitement et sans aucun engagement la première semaine de cours**. Les personnes intéressées pourront ainsi faire leurs premières phrases en basque, apprécier la pédagogie employée et connaître un peu mieux l'association avant de se décider définitivement.

Hormis la formule des cours d'octobre à juin, AEK renouvellera au cours de l'année scolaire ses **stages intensifs** en internat d'une semaine jusqu'à 4 mois. De même le succès rencontré par les stages thématiques proposés cet été (euskara/danse et 6 jours sur le GR10 en euskara) amèneront AEK à approfondir et élargir l'expérience pour l'été 2009.

Le développement des groupes destinés à des **publics spécifiques** (employé-e-s des Collectivités territoriales, de crèches, groupes en entreprises) va aussi s'accélérer dans les mois qui viennent. 22 groupes rassemblant plus de 130 stagiaires vont démarrer en septembre et 6 autres (50 stagiaires) commenceront en janvier. L'enseignement du basque aux adultes prend ici une autre dimension et remplit sa fonction stratégique dans la politique de ré appropriation de la langue basque en permettant d'étendre sa présence à de nouveaux espaces de la vie en société. La dernière enquête socio-linguistique publiée en juin dernier a montré que c'était bien là le chemin à suivre pour compenser la perte de locuteurs due aux facteurs démographiques (accroissement de la population par apport extérieur et disparition des classes d'âge les plus bascophones).

Cette année un nouvel outil est mis en place par AEK : la préparation au **diplôme EGA** (Certificat d'aptitude en langue basque) par internet sur le site [www.e-gela.aek.org](http://www.e-gela.aek.org) . Parallèlement les outils de l'an dernier fonctionneront cette année encore :

- ✓ **formation à l'écriture** en basque par internet. Avec l'aide d'un tuteur, l'élève travaillera différents textes basés sur des articles de journaux ou revues.
- ✓ **exercices et corrigés** classés par niveau mis à disposition des élèves sur le site : [www.aekide.net](http://www.aekide.net)

### **Perspectives de l'année 2008/2009**

L'année scolaire qui débute sera marquée par la présentation au Parlement français d'un projet de loi sur les langues territoriales annoncé par la ministre de la Culture lors du débat à l'Assemblée nationale du 7 mai dernier. Tou-te-s les défenseurs de la langue basque, acteurs associatifs ou élus sont dans l'attente d'un cadre légal qui garantira le développement d'une politique linguistique audacieuse et nécessaire à la ré appropriation de l'euskara.